

AITZINA

Editorea: Fermín Munariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egoña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

JOSEBA IGARABIDE

XALOA TELEBISTAREN ZUZENDARIA

«Urritik aurrera formatu eta saio berriekin hasiko gara»

Dirurik ez dagoenean, bizitzari imajinarioa jarri behar zaio, eta horrela egin dute Xaloa Telebistako partaideek. Euskaraz egiten duen herriko telebista honek urritik aurrera saio berriak emango ditu eta berriak ez diren formatua aldatuko du.

erortzeko, eta hori da egingo duguna, telebistari modernizazioaren ikutu bat emango diogu. Guk baliabide askorik ez dugu, ez dugu dirurik eta, hori dela eta, oraingoz ezin dugu gauza handirik egin. Baliabide handirik ez dagoelako, imajinarioa jarri dugu aurrera egiteko.

berriak sartzea da. Halere, kasu honetan, saio berri batzuk sartzeaz gain, beste aldaketa batzuk, nahiz eta hori baino txikiagoak izan, egingo ditugu, batez ere egun emittitzen dugun magazinean. Magazín hori egiteko erak aldatu nahi ditugu eta kolaboratzaile berri batzuekin lan egin.

Telebista jaio zenetik gaur arte, hau izango da egin duzuen aldaketarik handiena?

Aldaketarik handiena beti saio

Xaloa euskaraz egiten den herriko telebista da, baina ez bakarra. Zein mementotan dauzue horrelako telebistak?

Ezagutzera ematea da telebista hauen helburua memento honetan. Gehienak nahiko berriak gara, eta Administrazioak ez gaitu kontuan hartzen. Kataluniako esperimentzia, adibidez, guztiz kontrakoa da. Han herriko telebistek diru publikoaz funtzionatzen dute, eta hemen alderantziz gertatzen da.

Martxan jarriko dituzuen aldaketekin, Xaloa fase berrian sartzen dela esan dezakegu?

Guk oraindik beste helburu bat dugu buruan, eta hori jarraitzea eta hobetzea da. Gu euskararen normalizazioarako tresna bat izateko jaio ginen, eta orain arte egin duguna finkatu behar dugu. Gure informazioa espezializatua da: eskualdeko jendearentzat eta euskaraz egiten dena, eta jendeak gure lana jarraitzea dugu memento honetan helburua. Mantentzea eta hobetzea.

BEGOÑA SIMON

Noiz eta zein helbururekin jaio zen Xaloa Telebista?


Duela bi urte hasi ginen emittitzen, herriko telebista moduan eta euskaraz hutez. Guk zera nahi genuen: telebista herriarentzat egitea eta euskaraz. Egun geure ekoizpenak astero 14 ordu betetzen du, eta egun osoko emisioa dugu. Horrez gain, urritik aurrera aldaketa batzuk izango dira Xaloa Telebistan.

Zein aldaketa dira horiek?

Alde batetik esan behar dugu saio berezi batzuk jarriko ditugula martxan. Besteak beste, nekazariekin zuzendutako saioa, hirugarren adinekoentzat prestatu duguna eta haurrei zuzendutakoa. Saio berriez gain, egun daudenei formatu berria jarriko diegu: albigotegi, kirol saioei eta abar.

Zergatik aldaketa horiek egiteko beharra?

Berriketen bidez, ditugun akats batzuk zuzenduko ditugu. Kasu batzuetan formak aldatu behar dira, monotonian ez



Kaioz Cosío/la

Zirtoka



Txillardegi

Guraso

Hizkuntza ohartxo bat gaurkoan.

Amuritzak jarri dit «puntu», bestealde. Eta, hasi aurretik, erabat ados naizela esan behar dut.

Baina erdal esakerak eta erdal fonetika (eta erdal hiztegia, eta erdal abar) munitaraino sartu zaizkigun honetan, hizkuntza jatorritan alde agertzeo... ausardia apur bat behar da! Eta «apur bat» baino gehiago ere bai.

Euskaldun potoek «gure aita» esaten dute, bai, eta ez «nire aita»; gure poeta handi bati behin hori itzuri bazitzaion ere. Euskaraz pentsatzen dutenek «gure etxea», «gure gizona», «gure andrea» eta abar, esaten dute bide beretik.

Hain zuzen ere, oso ezaguna da «guraso» euskal hitzaren berezitasuna. Erdara askotan, Europako gehienetan, «guraso» hitzari jatorriz «aita» hitza datzekio (*padres; parents*, frantsesez eta ingelesez). Eta ez «guru» lehenengo pertsonaren izenordetik eratorritako «guraso» hori.

Hots, diotenez, Kaukaso-rai-no joan behar da Euskal Herriko jorera harrigarri hori berritoki aurkitzeko.

Ez dut uste, beraz, «guraso», «gure etxea» eta «gure gizona» horiek arinki ahazteko bitxikeria hutsa direnik. Eta Amuritzak euskal joera horren alde agertzean, inzikide nauka.

«Nire aita» horretan erdaratikako interferentzia baten aurrean gaudela garbi dago, hitz batez. Eta erakuskaririk garbiena askotan entzun ohi den sasi-euskarakada hau da, hain zuzen, beste muturrean oratua: «*mis aitas no vendrán con nosotros*» (!!!). Nik dakidala, eta erdaldunek barka nazatela, aita bakarra dugu denok...

Baina «*piel de toro*» delakoa azken neurri bihurtu zaigu.

AITZINDARIAK

BARTOLOME KARRANTZA
1 4 9 2 1 5 7 6



INDIETAKO BERTAKOEN ZUZENAK ALDARRIKATU DITU, ETA HAATIK KUSKOKO ARTZAPEZPIKUGOIA ERREFUSATU.



INGALATERRAN KATOLIZISMOA BERREZARTZEN SAIATU LAIGU WESTMINSTER ETIK BERTAKI.

TRENTOKO KONZILIOAN ELIZAREN USTELKERIAREN KONTRA EMAN DU INDIRA

1 Nik etxen ez dut ez zetazko koderarik, ez eta zilarrezko boxerarik ere. Ene mahaia ez da harrandiosoa, ez baitut onon irakurri hala behar denik gure lanaren alde, baina aurka hain segur. Beti afera horren kontra predikatu izan dut, eta orain egitatean agertu»

TOLEDOKO (ERROMAKOAREN ONDOTIK DIOZESI ABERATSENA) ARTZAPEZPIKU KARGOIA HARTU DU.

Apezen eta gotzaien aberastea Ebanjelioaren kontakook dira: Elizaren ondatsunak Katolizismoa atxikitzeko ditugu; GAINERATEKOA BEHARTSUEI EMAN.



INKISIZIOAK PRESO ERAMANIK 17 URTEKO PROZESOA JASANEN DU, BAIZIK ETA LUTHERTZALEA ZELA.

OJALA SE HUBIESE ESCRITO DOCTRINA EN LENGUA VASCA MIL QUINIENTOS AÑOS ANTES...



DOCTOR NAVARRO